

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

BANAIZ BAGARA ELKARTEA

Irakasleak etxeko lan berezia jarri die gaur ikasleei: Inguruan dituzun pertsonak protagonista hartu eta idatzi ipuin bat. Intzak Veronicaren eta bere aitonaren laguntasuna oinarri duen ipuina idatzi du.



EGUN ON, KUADRILLA. ONDO?
GAUR ZUEN IPUINAK IRAKURTZEKO EGUNA
DA. IRRIKAN NAGO IDATZI DITUZUEN ISTORIO
EDERRAK EZAGUTZEKO.

NIK PATAKONI BURUZ
IDATZI DUT. HAIN DA
ZELEBREA!

NIK VERONICARI
ETA AITONARI BURUZ.
LAGUN ONAK DIRA.



TIRA, INTZA,
HASI ZU ZURE IPUINA
KONTATZEN. JARRI HOR NIRE
TOKIAN ETA IRAKURRI
IDATZI DUZUNA.

ADOS.
EZ DAKIT GUSTATUKO
ZAIZUEN BAINA...



LEHEN AITONA ETA AMONA ELKARREKIN
BIZI ZIREN. AMONAK MUNDUKO KROKETA
ONENAK EGITEN ZITUEN. EGUN BATEAN, BAINA,
GAIXOTU ETA HIL EGIN ZEN. ETA AITONA
BAKARRIK GERATU ZEN, TRISTE ETA
OSASUNEZ MAKAL.



Aitonak eguna telebistaren aurrean
eta isilik pasatzen zuen. Eta nire gurasoak
atzera eta aurrera, oso urduri, ez zutelako
aitona zaintzeko denbora nahikorik.



Egun batean Veronica etorri zen, oso urrutitik. Ecuador izena du bere herriak. Oso umore ona dauka, beti irribarrez dago eta oso ondo zaintzen du aitona. Orain biak bizi dira elkarrekin. Aitona pozik dago eta gurasoak lasaiago, badakitelako aitona ez dagoela bakarrik.



Veronicak egun batean oso isila nintzela esan zion aitonari. Aitonak erantzun zion berritsu hutsa nintzela, baina euskaraz hitz egiten nuela beti eta kostatu egiten zitzaidala gaztelaniaz hitz egitea. Aitonak, aukera baliatuta, berari ere berdina gertatzen zitzaioela esan zion. Euskaraz errazago aritzen zela.



Ni ere ondo moldatzen naiz Veronicarekin hasieratik. Baina ez dut asko hitz egiten berarekin. Berak ez zuen euskaraz hitz egiten, eta nik, gaztelaniaz, oso gaizki. Aitonak ere nahiago euskara. Pentsa, Veronica etorri aurretik ez nekien aitona gaztelaniaz hitz egiten zekienik ere.



Orduan Veronicak esan zuen: «Euskaraz ikasi behar dut. Zure aitona ondo zaintzeko eta zuen lagun ona izateko euskara garrantzitsua da». Orain, astean pare bat aldiz euskara ikastera joaten da. Guk ere laguntzen diogu etxean. Oso pozik gaude denok.



ZORIONAK,
INTZA. KONTAKIZUN
EDERRA!

ZE INTERESGARRIA,
VERONICA EZAGUTZEKO
GOGOA SORTU ZAIT!



NAHI DUZUNEAN ETORRI
AITONAREN ETXERA GUREKIN
PARTXISEAN JOLASTERA. LAU
JOKALARIREKIN ASKOZ
HOBETO!

BANAIZ BAGARA ELKARTEA

Banaiz Bagara elkarteak 2009an sortu zen Urnietan, gure gizartean jatorri ezberdinetako pertsonen artean euskaraz bizitzeko aukera gehiago sortzeko, pertsona gehiagorentzat.



2013an, Europako Kontseiluak sortutako "Language for Work" proiektua ezagutu zuten; Europan zehar migratzaileei eta bertako langileei lantokiko komunikazio gaitasunak lortzen eta hobetzen laguntzea helburu duena.



2015. urtetik aurrera, bere jarduerak nagusia lan munduan euskara erabiltzera bideratuta dago. Horretarako, formatu desberdinak sortu dituzte: Guk ere Euskaraz Lanean, Euskara Moduluak eta Euskara Plus programa.

HARREMANAK
Banaiz Bagara Elkartea
Andre Zigarrogileen plaza, 1 (Tabakalera)
3. solairua (Impact Hub barruan)
20012 Donostia
Tel.: 943 331 455 – 645 733 818
info@banaizbagara.eus